

BALOREZKO PROPOSAMENA

Atal honen bitartez gure zerbitzuaren eginkizuna aurkeztu eta bere funtzioa eta asetzen dituen beharrak azalduko dizkizuegu.

Imajinatu Donostiako biztanlea zarela, edota sarritan joaten zarela bertara, baina urteko ia egun gehienen antzera, gaur ere euria egin behar duela aurreikusi da. Goizeko zortzietan etxetik irteten zarenetik, arratsaldeko bostak arte, euria egingo ez duen arren, aterkia hartzea erabakitzen duzu. Aterkiak egun osoan zehar behar ez dugun zama sorrarazten du, hor sartzen da gure zerbitzua.

Guk aterki zerbitzu bat eskaintzen dugu, honen bidez, kalera jendeak aterki bat eraman behar izatea saihesten da. Gure zerbitzu-ereduaren ideia, Donostiako "Dbizi"-n oinarrituta dagoela esan daiteke. Gure produktua mailegaturik hartuko da ezarritako leku finkoetatik, eta erabiltzaileak bere beharrak asetzen dituenean, hau da, euritakoari erabilera eman dionean, lehen aipatutako gertuen duen leku finkoan utzi dezake.

Euritakoak estruktura edo aterki-puntu finko batean aurkitu ahal izango dira Donostiako faroletan zehar, izan ere, kale-argietako elektrizitatea aprobetxatuko dugu aterki-puntuak funtziona dezan. Hasiera batean, Amara, Altza, Gros, Intxaurren eta zentroan 1.000 estruktura inguru jarriko ditugu bakoitzean; Antiguoa, Egia eta Aieten 500; eta Ibaieta, Bidebieta, Loiola, Ategorrieta, Martutene, Añorga, Miramon, Igeldo eta Zubietan 20 eta 75en artean dago jarriko ditugun estruktura kantitatea; hauek bakoitzaren biztanleen eta duten mugimenduaren arabera finkatu ditugu.

Aterki-puntu bakoitzean bost aterki egongo dira baina hiru aterki gehiagorentzako tokia egongo da, norbaitek beste bat utzi nahi izan ezkerre aukera eduki al izateko. Aterki bakoitza kabina antzeko batean egongo da kokatuta, eta kabina horiek farolaren inguruan, lurretik gutxi gora behera metro batera dagoen zilindro formako oinarri batera lotuta, base hori izango da elektrizitatea duena, material bereko lau hodiren laguntzaz kale-argietara lotuta dagoelarik. Kabina bakoitzaren baurrealdea material garden batez egitea pentsatu dugu, kalean dauden pertsonen atentzioa deitzeko.

Aterki-puntuekin jarraituz, nahitaezkoa iruditzen zaigu behin aterkiari erabilera eman ondoren, hauek lehortzea; bestela aterkia osatzen duten materialak hondatu egingo baitira eta aterkia berrerabiltzen duen bezeroari ahal den egoera onenean ematea ere halabeharrekoa da.

Aterkien erabilera mugatua izango da, pertsona batek epe bat izango du hura erabili eta berriro ere, aterki-puntura bueltatzeko. Ezarritako denbora, 6 ordukoa izatea egokiena iruditzen zaigu, euritako bati, denbora-tarte hura baino gehiagoko erabilera emango ez

zaiola uste baitugu. Epe honen barne, bezeroren bati aterkia bueltatzea ahaztu egiten bazaio, denbora edukiko du oraindik ere. Pertsona batek aterki bat hartu eta egun bat baino gutxiagotara bueltatzen ez badu, atentzioa deituko zaio aplikazioaren bitartez, izan ere, guk aterkien segmentu bat egingo dugu geroago aipatuko dugun txip-ekin eta hiru egun pasa ezker, euritakoaren kostua kargatuko zaie harpidetza ordaintzen duten kontu korrontera, honekin seguruagoa izatea dugu helburutzat. Eta aldiro aterki bat besterik ezingo da hartu, bestela jendea aprobetxatu egin baitaiteke.

Aterkiei dagokienez, ez gara asko korapilatuko. Hasieran, aterkiak ez dira kalitate hobereenekoak izango baina denboraren poderioz kalitate hobea duten modelo batera pasatzea espero dugu; baina aluminiozkoak izatea pentsatu dugu, material honen berezitasunak direla eta. Apartekotasun bakarra aterki bakoitzak eramango duen txip-a da, honekin aterkiak ez desagertu edo galtzea lortu nahi dugu, eta aterki-puntu bakoitzean zenbat aterki dauden jakin momentu oro.

Gaur egun, gure bizitzan teknologia geroz eta nabarmenagoa da eta guk bide beretik jarraitu nahi dugu, gure zerbitzua mugikorreko aplikazio baten bitartez funtzionatuko du. App hau mugikorrean instalatu eta bertan harpidetu beharko dute, bertan edukiko du bakoitzak bere QR kodea irakurtzeko tresna eskuragarri, aterkiak hartu eta uzteko aukera izateko; horrez gain, aplikazioan Donostiako mapa bat egongo da, non aterki puntu bakoitzaren lokalekua agertzen den. Gainera, aplikazioan bertan, bezeroak beraien iritzi pertsonalak, kezkek, arazoak... idazteko aukera izango dute.

Aterki bakoitzaren ondoan QR kode bat egongo da, bakoitzak mugikorrarekin kodea irakurri eta aplikazioa arduratuko da kabinaren goialdean dagoen ate gidariduna eta barnean eusten duen burdina mugitu ahal izango dira eta aterkia bertatik hartu edo uzteko aukera izango dute erabiltzaileek, eta zein aterki hartzen duten erregistratuta geratuko da.

Zerbitzu honekin, denda lokalei publizitatea egitea ere dugu helburu. Izan ere, gaur egungo gizartean, jende gehienak denda globalizatueta egiten ditu erosketak, “*Inditex*” antzerako enpresetako dendetan adibidez, hori aldatu ahal izateko, inguruko ekintzaileei sustatzeko aukera eman nahi diegu. Donostiako bertako edo inguruko herrietako dendek izen, logo, edo bestelako informazioa gure aterkietan jarriz egingo genuke hau.

Ez dugu gure zerbitzuaren antzekorik ezagutzen, hortaz, jendeak nobedadetzat hartuko du eta erabilera handia emango dute. Gure inguruan horrelako zerbitzurik martxan ez dagoenez; behar izanez gero, guregana joko dute bezeroek.

